



GOBERNU BILERA

**Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak**

CONSEJO DE GOBIERNO

**Dossier de Prensa
Acuerdos destacados**

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriak 26

Vitoria-Gasteiz, 26 de octubre de 2021

Segurtasuna

EUSKO JAURLARITZAK ETA EUSKADIKO ENPRESA KIMIKOEN ELKARTEAK HERRITARREI INFORMAZIOA EMATEKO KANPAINEKIN ETA ABISU-SAREAREKIN ZERIKUSIA DUEN HITZARMEN BAT IZENPETUKO DUTE

- Hitzarmenean SEVESO istripu larrien zuzentarauan inplikaturako enpresa kimikoen arduradunek ere parte hartuko dute
- Herritarrei abisuak emateko sarea osatzen dute substantzia arriskutsuak tartean direla gerta litezkeen istripu larrien aurrean biztanleria ohartarazteko sirenek eta megafonia finkoak

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Segurtasun Sailak, Euskadiko Enpresa Kimikoen Elkarteak (AVEQ-KIMIKA) eta Dekitra SA, Hernaniko Elektrokimika SA, Hexion Specialty Chemicals Ibérica SA, General Química SAU eta Petróleos del Norte SA (Petronor) enpresek izenpetuko duten lankidetzaz hitzarmenari. Hitzarmena arrisku kimikoarekin lotuta biztanleriari zuzendutako informazio-kanpainak antolatzearekin eta larrialdi-kasuetarako abisu akustikoen sarea mantentzearekin lotuta dago. Sare hori oinarritzen da sirenak eta megafonia finkoa instalatzean substantzia arriskutsuak tartean dituzten istripu larrien arriskua kontrolatzeko.

Euskadiko administrazioak bere garaian alerta eta kontrol ekipamenduen sare bat eskuratu eta instalatu zuen kanpoko larrialdietako planei erantzun ahal izateko, baina orain babes zibilaren arloko larrialdi bat eragin dezaketen jardueren titularrek instalatu eta mantendu behar dituzte, euren kontura, gerta litezkeen larrialdien eraginpeko biztanleriari zuzendutako alarma-seinaleen sistemak, Babes Zibileko Sistema Nazionalaren uztailaren 9ko 17/2015 Legean jasota dagoen bezala.

Horrela, AVEQ-KIMIKA izango da, inplikaturako enpresen izenean, sistema mantentzeko zerbitzuen eskaintzaren eta kontratazioaren kudeaketaz arduratuko dena, Eusko Jaurlaritzarekin adostuta.

Horrela, asmoa da Eusko Jaurlaritzaren eta enpresa kimiko jakin batzuen arteko lankidetzaz antolatzea biztanleriari zuzendutako abisu akustikoen sistemaren egoera operatiboaren kudeaketan eta mantenimenduan, bai eta horren jarraipen teknikoa egitea ere.

Hauek dira Euskadin sirenez eta megafonia finkoz ostatutako instalazioak dituzten herriak: Santurtzi, Muskiz, Zierbena, Abanto eta Zierbena, Hernani eta Lantaron.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

EUSKADIK 305 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU KARBONO-NEUTRALITASUNERAKO ETA LURRALDEAREN ERRESILIENTZIARAKO ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIETARAKO

- **Gaur onartu den 2021-2024 aldirako Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Planak 15 ekimen enblematiko hartzen ditu barne, helburu hauek lortzeari begira: klima-neutraltasunaren bidean aurrera egitea 2050erako; lurraldea hobeto egokitzea klima-aldaketaren ondorioetara; eta klima-ekintzaren eta trantsizio energetikoaren zeharkakotasuna politika guztietan bultzatzea.**
- **Eusko Jaurlaritzak, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren bitartez, 305 milioi euro bideratuko ditu ekintza horiek finantzatzera.**

Eusko Jaurlaritzak argi berdea eman dio gaur 2021-2024 aldirako Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Planari, isuriak murrizteko, energia berriztagarriak indartzeko eta lurraldea klima-aldaketaren inpaktueta egokitzeko helburuak betetzeko xedez; plan hau Euskadiko Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko lehenengo Legearen aurreko urrats gisa onartzen da, lege hori tramitazio-prozesuan baitago gaur egun. Zehazki, Eusko Jaurlaritzak 2024. urtea horizontetzat hartuta gaur onartu duen Planak % 30 murriztu nahi ditu berotegi-efektuko gasen isurketak; energia berriztagarrien kuota energiaren azken kontsumoaren % 20 izatea lortu nahi du; eta euskal lurraldearen erresilientzia segurtatu nahi du klima-aldaketaren aurrean.

Planak lehentasunezko jarduera-eremuak identifikatzen ditu, gai hauei dagokienez: alde batetik, berotegi-efektuko gasen isuriak murriztea, efizientzia energetikoa, ekonomia zirkularra eta hiri-berronratzea bilatuz eta eredu energetiko berri bat bultzatuz, energia berriztagarrien aprobetxamendua eta karbono-hustubideen rola oinarritzat hartuta.

Beste alde batetik, klima-aldaketara egokitzeko jarduerak ere aurreikusten ditu, lehen sektorea, ingurune naturala, kostaldea eta baliabide hidrikoak inplikatur, beste batzuen artean. Gainera, sektore batzuek herritarren erresilientzia handitzerakoan duten garrantzia nabarmentzen du, hala nola lurraldearen antolamendua eta hirigintza, baita funtsezko azpiegituren egoera eta kudeaketa ere.

Halaber, azpimarratu behar da Plan honek arriskuak prebenitzeko eta berauek gertatu aurretik jarduteko duen garrantzia, muturreko egoeren aurrean alerta-sistema on bat izateari begira, egoera horiei aurreko egiteko baliabide nahikoekin. Horregatik, larrialdiak indartzeko beharra, babes zibila eta osasun-sistema funtsezko elementu gisa ezartzen dira dokumentu honetan.

Plana hiru ardatz nagusitan egituratzen da, neutraltasuna, lurraldearen erresilientzia eta klima-ekintzaren eta trantsizio energetikoaren zeharkakotasuna

lortzera zuzenduak; halaber, bederatzi jarduketa-ildo ditu, 15 ekimen enblematiko jasotzen dituztenak lan-eremu espezifikotan, hala nola energia berriztagarriak, hiri-berroneratzea edo ekonomia zirkularra; zenbait sektoretan, hala nola industria, lehen sektorea edo larrialdiak; eta zeharkakoak eta beharrezkoak diren eremuetan, hala nola berrikuntza edo bidezko trantsizioa.

2021-2024 aldirako Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Plana garatzeko, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak 305 milioi euro bideratuko ditu.

Plan honen barruan gauzatuko diren jarduketa konkretuen adibide batzuk honako hauek dira:

- Energia berriztagarrien plangintzaren kudeaketa eta jarraipena; BIMEPen saiakuntza-eremua handitzea.
- Itsas energia eolikoaren alorreko proiektuak sustatzea, EEEn urteko laguntza-programaren bitartez.
- Energia sortzeko herritarren kooperatiben sorrera bultzatzea, EKIOLaren bitartez.
- Hidrogeno berdea ekoizteko lehenengo proiektuak bultzatzea.
- Mugikortasun jasangarriaren sustapena eta garraiabide efizienteagoen erabilera.
- Inguratzaile termikoa eta lehendik dauden eraikinetako instalazioak birgaitzeko inbertsioetarako laguntza-programen bidez sustatzea.
- Ekonomia zirkularraren alorreko bide-orriak garatzea.
- Xurgatze-proiektuak sustatzea, laguntza-programak garatuz eta bideratuz, Euskadiko hustubideen ahalmena handitzeko.
- Itsasertzeko Lurralde Plan Sektoriala (LPS) eguneratzea, klima-aldaketaren agertokiak barne sartuz.
- Naturan oinarritutako irtenbideen katalogo bat egitea, eskala desberdinetan, Euskadiko klima-mehatxu nagusiei erantzutera zuzenduta.
- Klima-berrikuntzako proiektuak eta egokitzeko eta arintzeko proiektuak udal eta eskualde mailan garatzeko laguntzen deialdia.
- Euskadiko Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Legea onartzea, gaur egun tramitazio-prozesuan baitago.
- Toki administrazioko eraikin publikoetako, argiteria publikoko eta ibilgailu-parkeko jasangarritasun-jarduketei laguntzea.

15 ekimen enblematiko

2021-2024 aldirako Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Plana tresna aurrendari bat da; beraren bitartez, Euskadik indartu egiten du nazioartean hartutako helburuak lortzearekin hartuta duen konpromisoa, klima-aldaketaren oraingo abiadura murrizten laguntzeko eta haren ondorioen aurrean erantzuteko ahalmena handitzeko, ondorio horiek jadanik agerikoak baitira zenbait alorretan. Identifikatu da Europako hegoaldea eremu kalteberenetako bat dela, eta, hortaz, Euskadik klimaren aldeko ekintza kokatu du bere ardatz nagusien artean.

Planean jasotako 15 ekimen enblematikoez helburu hauek ezartzen dituzte: lurraldearen antolamendu eredugarria lortzea energia berriztagarrien

garapenerako; Euskadi nazioarteko erreferente bihurtzea energia ozeanikoetan; Euskal industria lehorreko eta itsasoko azpiegituren garapen teknologikoaren abangoardian jartzea; eguzki-energia fotovoltaiako instalazioak ezartzearen alde egitea, etorkizun elektriko eta berriztagarri baten aurrean; eta hidrogenoa ekoizteko, banatzeko eta kontsumitzeko ekosistema bat Euskadin sortzea.

Beste ekimen batzuk honako hauek dira: mugikortasun jasangarria, energia- eta ingurumen-konpromisoei datozen urteetan erantzuna emango dien garraio-eredu bat ezarriz; eraikinen birgaitze energetikoa bultzatzea; berotegi-efektuko gasen isurketak ekonomia zirkularraren bidez murriztea; karbono-hustubideen ahalmena handitzea, zeren funtsezko pieza baita klima-neutraltasunerako; eta klima-aldaketaren aurrean erresilientea den euskal Natura 2000 Sare bat eraikitzea, karbono-hustubide gisa jokatzeko duen rola indartzeko.

Azkenik, kostaldeko udalerrri eta azpiegiturak hobeto prestatu nahi dira klima-aldaketaren erronkarako; naturan oinarritutako irtenbideak hedatu nahi dira, udalerrrien erresilientziaren berrikuntza-iturri gisa; lortu nahi da herritarrak prestatuta egotea klima-aldaketara egokitzeko eta bidezko trantsizio energetikorako; trantsizio energetikoari eta klima-aldaketari buruzko lege bat garatu nahi da, Euskadi oraingo arau-testuingurura egokituta dauden lehenengo eskualdeen artean kokatzeko eta klimatikoki neutroa eta klima-aldaketaren aurrean erresilientea den lurralde bat izatea lortzeko, bidezko trantsizio bat gauzatuz; eta lortzea administrazio publikoa eredugarria izatea euskal gizartearen trantsizio energetikorako eta erresilientziarako.

2021-2024 aldirako Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Planaren eskema: ardatzak eta jarduketa-ildoak



Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

12 MILIOI EUROKO APARTEKO LAGUNTZAK COVID-19AK ABELTZAINZAKO PRODUKTUEN KOMERTZIALIZAZIOAN ERAGINDAKO KRISIARI AURRE EGITEKO

- **Laguntza horiek Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak Euskadiko elikakateko ETEei zuzendu dizkien laguntzen multzoa osatzen dute**
- **Euskadiko haragi- eta esne-ekoizpenaren sektorea izan da sargaien prezioen igoerak gehien kaltetu dituen sektoreetako bat, eta horrek zaildu egin du bere produktuaren komertzializazioa**

Eusko Jaurlaritzak, Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuaren agindu bidez, 2021erako aldi baterako aparteko laguntzak deitu ditu Euskal Herriko esnetarako behien, haragitarako behien, ardien, ahuntzen, haragitarako hegaztien eta hegazti erruleen, txerrien, untxien eta zaldien sektoreetan abeltzaintza-jarduerari eusten laguntzeko helburuarekin. COVID-19aren testuinguruan Estatuaren laguntza-neurrien aplikazio-eremura egokitzen dira, eta 12 milioi euroko zuzkidura dute, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuen kargura.

COVID-19aren pandemiak nahaste garrantzitsuak eragin ditu hainbat elikagai-produktuen merkatuan, bai etxean, bai etxetik kanpo, eta abeltzaintza-sektorea ez da errealitate horretatik kanpo geratu. Osasun-krisiak eragin handia izan du euskal haragi-ekoizleen sektorean (behiak, ardiak, hegaztiak, etab.), krisi ekonomikoko ingurune batean gizarte-kontsumo nabarmeneko produktu bati irteera emateko dauden merkataritza-zailtasunengatik. Esne-sektoreak ere eragin negatiboa izan du, eta esnearen salmenta-prezioak ekoizpen-kostuak baino txikiagoak izan dira.

Nahiz eta Eusko Jaurlaritzak 2020an elikaduraren balio-katera bideratutako aparteko laguntza ekonomiko batzuk hartu zituen, abeltzaintza-sektoreak egoera larrian jarraitzen du, eta egoera hori larriagotu egin da jasotako prezioen pixkanakako beherakadaren eta sargaien kostuak igotzearen ondorioz; gainera, epe laburrean ez da hobekuntzarik aurreikusten. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak abeltzaintzako ustiatzei zuzendutako laguntza-lerro hau jarri du abian sektore estrategiko baten egoera arintzeko, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspegitik.

Onuradunak eta aurkezteko epea

Agindu honetan deitutako laguntzen onuradun izan daitezke pertsona fisiko edo juridiko pribatuak, edozein forma juridiko dutela ere; esnetarako behiak, haragitarako behiak, gizentzeko behiak, ardiak, ahuntzak, txerriak, hegaztiak, zaldia dituen abeltzaintza-ustiatzeien eta untxi-hazkuntzara bideratutako ustiatzeien titularrak.

Eskabideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan aurkeztuko dira. Eskabidea aurkezteko epea Agindua indarrean jartzen den egunean hasiko da, eta funtsak agortzen direnean edo 2021eko azaroaren 15ean amaituko da.

Onuradun edo nekazaritza-ustiatzei bakoitzeko eskabide bakarra onartuko da. Laguntzak eskatzeko ereduaren oinarritzko edukia <http://euskadi.eus> webgunean egongo da eskuragarri.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

EUSKADIK BAT EGIN DU MUNDUKO FORO EKONOMIKOAREN ADIERAZPENAREKIN, EUSKADIKO INDUSTRIAK 2050ERA KO ZERO EMISIO GARBI IZATEKO KONPROMISOA HARTZEKO

Gobernu Kontseiluak baimena eman du Euskadi jasangarritasunarekin konpromisoa duen industria sustatzen duen Munduko Aliantza bati atxikitzeko.

Munduko Foro Ekonomikoak sortu duen *Industria-klusterren trantsizioa zero emisio garbi lortzeko* ekimenaren helburua da 2050. urterako industria-klusterren trantsizioa lortzea zero emisio garbi lortzeko.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzak, lehenik eta behin, tokiko ekimen bat sustatuko du, eta, ondoren, mundu-mailara egingo du jauzia. **Bihar** izango da ekimena, **asteazkenean, urriaren 27an**, *Basque Net-Zero Industrial Super Cluster – Euskadiko Net Zero Super Industria Klusterra*.

Hitzordua Bilbao Exhibition Centerren* izango da, eta, hartan, industria-klusterrek parte hartuko dute, aliantzaren enpresa sortzaileekin batera: Petronor eta Iberdrola.

Euskadiko Aliantza eratzen duten agenteek konpromisoa hartuko dute *Zero emisio garbi lortzeko industria-klusterren trantsiziorako anbizio-adierazpenarekin*; hura Nazio Batuen klima-aldaketari buruzko urteko konferentziaren hogeita seigarren edizioan sinatuko da. Konferentzia Glasgown izango da, 2021eko azaroan.

Basque Industry Net Zero-ren aurkezpena

Eguna: Asteazkena, 2021eko urriaren 27a

Ordua:

- 11:50ean. Baliabide grafikoak BEC Dorre aretoan.
- 12:00etan. Net-Zero Aliantza Industrialaren argazkia hall nagusiko eskaileretan.
- 12:05ean. Prentsaurrekoa prentsa-aretoan. Honako hauek hitz egingo dute: Arantxa Tapia, Ana Camacho eta Cristina Oyon.

Lekua: Azkue kalea, 1, 48902 Barakaldo, Bizkaia

Gaia: Arantxa Tapia sailburuak, Ana Camacho Industriaren eta Energia Trantsizioaren zuzendariarekin eta Cristina Oyon SPRIko Teknologia, Berrikuntza eta Jasangarritasuneko zuzendariarekin batera, Basque Net Zero ekitaldian parte hartuko du. Bertan izango dira, halaber, Euskadiko industria-egituraren ordezkariak. Euskadik, hala, lehen urratsa emango du, Munduko Foro Ekonomikoaren adierazpenarekin bat egiteko eta industriak 2050erako zero emisio garbi izateko duen konpromisoa ixteko.

Ekonomia eta Ogasuna

2022ko EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AURREKONTU OROKORREN PROIEKTUAK 13.108 MILIOI EURO HARTZEN DITU, ETA SUSPERRALDI EKONOMIKOA DU ERRONKA, 1.600 MILIOI EUROTIK GORAKO INBERTSIO PUBLIKOAREKIN

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du 2022ko Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Proiektua, 13.107,8 milioi eurokoa. Aurrekontu operatiboa — politika publikoetako gasturako eskuragarri, amortizazioak, Euskal Y-a eta Hegoaldeko Saihesbidea kenduta (gastu erreala)— 694 milioi eurotan gehituko da, hau da, iaz baino % 6 gehiago. Zenbateko horrek azalpen zabalagoa eskatzen du, kontuan hartu behar baita 2021eko aurrekontuan sartutako Covid Funtzaren 543 milioi euroak barnean hartu direla. Hartara, 2022an, Covid Programa 349 milioi eurokoa izango da (Hezkuntzan eta Osasunean % 100 mantenduko da), eta 194 milioi euro jarriko dira sailen gastu-ahalmena handitzeko. Horrenbestez, politika publikoetarako igoera **888 milioi eurokoa** izango da (2021ean baino **% 7,6 gehiago**). Aurrekontu honen erronka Euskal Autonomia Erkidegoaren susperraldi ekonomikoa izango da, inbertsio publikoaren ildotik. Hala, 2022an, Eusko Jaurlaritzak 1.605 milioi euroko inbertsioa aurreikusten du, hau da, 2021. urtean baino % 50 gehiago. Zenbateko horretatik, 165 milioi euro jarriko dira Foru-Aldundiekin batera egingo den erakunde arteko inbertsio-plan baterako. “Inbertsio publikoa da 2022ko aurrekontuaren ezaugarri nagusia”, aditzera eman du Azpiazu sailburuak.

Datozen urteetarako Euskal Autonomia Erkidegoko apustu handiak bultzatuko dira, eta erabakitasunez eta bermez ekingo zaie hiru trantsizio nagusiei: trantsizio teknologiko eta digitalari, trantsizio energetiko eta klimatikoari eta trantsizio sozial eta sanitarioari. Eusko Jaurlaritzak aurre egin behar die Covid-19ak eragindako krisialdiari eta krisialdi horren ondorio ekonomiko eta sozialei, baita gobernu-ekintzaren helburu nagusiei ere. Europar Batasunak arau fiskalak etetearen ondorioz sortutako ezohiko egoeraren ondoriozko “aurrekaririk gabeko” aukera baliatu nahi da. “2022. urteak inbertsio publikoa maximizatzea eskatzen digu, baimendutako mugak estutuz eta eskura ditugun baliabide guztiak erabiliz” adierazi du Ekonomia eta Ogasuneko sailburu Pedro Azpiazuk.

Era berean, eta inoiz baino gehiago, Eusko Jaurlaritzak gizarte-politikak bermatzeko eta hobetzeko konpromisoerik eusten die, eta, berriro ere, proiektu horren % 77 gizarte-politikei dagokie, 10 eurotik ia 8 euro.

2022ko aurrekontuan, genero-ikuspegi globalaren aldeko apustu argia jaso da — % 16,5 hartzen du, 2021eko aurrekontuetan baino lau hamarren gehiago—. Aurreko legegintzalditik bultzatutako ikuspegi horren bidez, aurrekontuetan genero-ikuspegi integrala sartzen ari da; izatez, genero-berdintasuna lortzeko ekimen esplizituak finantzatzeaz gain, politika publiko guztietan ere aintzat hartuko da genero-ikuspegia.

Horrenbestez, alderdi zehatzagoak sakondu baino lehen nabarmendu beharreko 4 alderdi jasotzen ditu proiektuak:

1. **Inbertsio publikoa % 50 gehitzea** —1.600 milioi eurotik gora—.
2. **I+G arloko konpromiso irmoa (+% 10)**, 588 milioi euroekin (2021ean baino 52 milioi euro gehiago)
3. **10 eurotik ia 8 euro jarriko dira GASTU SOZIALETARAKO.**
4. **Covid-programa, 349 milioi euroekin** —% 100 mantenduko da Hezkuntzan (95,6 milioi euro) eta Osasunean (185,4 milioi euro)—.

Urriaren 29an erregistratuko da aurrekontu-proiektua Eusko Legebiltzarrean, eta sailburuak azaroaren 2tik 4ra bitartean bertaratuko dira Legebiltzarrera. Hortaz, aurrekontu-proiektua abenduaren 23an onartzea aurreikusten da.

1. Ekonomiaren arloko baikortasun zuhurra

Urte honetarako espero den hazkundera % 6,7an mantenduko da, nahiz eta zuhurtziaz jokatzera behartzen duten zenbait ziurgabetasun dauden, hala nola energiaren prezioa eta industria-hornigaien gabezia. 2022rako, ekonomiaren arloko itxaropenak hobetu egin dira, eta horrek eragin positiboa izango du euskal ekonomian, % 6,4ko hazkundera espero baita.

Susperraldi ekonomikoarekin batera, gora egin dute prezioek, batez ere lehengaien prezioek. Gasak zein elektrizitateak oso balio handiak dituzte, eta abuztuko Kontsumoko Prezioen Indizearen urtetik urterakoa % 3,3ra iritsi da, azken hamar urteetako handiena. Hala ere, mendeko inflazioak (% 1,0) pentsarazten du fenomeno iragankorrak direla, eta seguruenik ez direla epe ertainean finkatuko.

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiak % 18,6ko urte arteko gehikuntza izan du 2021eko bigarren hiruhilekoan, baina oraindik ez da berreskuratu birusa iritsi aurreko ekoizpen-maila —hurrengo hiruhilekoetan lortzea espero da—.Euskal Autonomia Erkidegoko eta Europako ekonomien arteko konparazioak agerian uzten du 2020ko beherakada eta egungo susperraldia biziagoak izan direla Euskal Autonomia Erkidegoan; izatez, eurogunearen osotasunean bigarren hiruhilekoan % 14,3ko igoera izan da eta Europar Batasunean % 13,8koa. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore nagusi guztiek aldakuntza handiak izan dituzte haien balio erantsian.

Eskariaren ikuspegitik, kanpoaldearekiko merkataritza lehengoratzea izan da ezaugarri nagusia. Bost hiruhilekotan jaitsi ondoren, 2021eko bigarren hiruhilekoan ondasun eta zerbitzuen esportazioek eta inportazioek urtetik urterako % 30 gehikuntza izan dute, gutxi gorabehera. Merkataritza suspertzen ari da oro har, eta itsasoz egiten den salgaien garraioan itoguneak sortzen ari dira, ez baitago enpresek egindako eskaera guztiak garraiatzeko edukiontzirik eta urriak baitira zenbait lehengai eta produktu erdilandu.

Barne-eskariaren bi osagai nagusiek atzean utzi dute uzkurdura fasea, eta indarrez hazi dira. Izan ere, kapitalaren eraketa gordinak % 21,4ko urte arteko gehikuntza izan du, eta azken kontsumoko gastuak % 18,1eko urte arteko tasa

izan zuen hiruhilekoan. Kontsumo pribatuaren bultzada handiari esker (% 22,6) lortu da aurrerapen hori.

Barne Produktu Gordinaren hazkunde handiak pandemiaren lehen hilabeteetan galdutako enpleguaren zati handi bat berreskuratzea ekarri zuen. Ildo horretan, aurreikusten da 2021ean langabezia-tasa % 10,3koa izatea eta 2022an % 9,5era iristea. Hartara, Eusko Jaurlaritzaren konpromisoetako bat beteko litzateke. Hurrengo urtean 10.800 lanpostu berriak sortuko dira.

2. Esparru ekonomiko eta finantzariora

Diru-sarrerei dagokienez, Foru Aldundien ekarpenak 11.003 milioi eurokoak dira, hau da, zenbatekoa 1.384,7 milioitan gehitu da 2021eko eta 2022ko urteko zenbatekoak alderatuta (+% 14,4). Dena dela, Finantzen Euskal Kontseiluak urriaren 15eko bilkuran zenbatetsitako itxierari erreparatuta, 10.551,8 milioitik 11.003,9 milioira gehitu da, hau da, 452,1 milioi euro (+% 4,3).

Europako Funtsetatik —Europako Gizarte Funtza, Eskualde Garapeneko Europako Funtza, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtza, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtza, eta Itsasoko eta Arrantzako Europako Funtza— datorren zenbatekoa 258,7 milioi eurokoa da; Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanisмотik datozen funtsak, aldiz, ez dira sartu. Hala ere, aurrekontu-legeak iritsi ahala jasoko ditu funts horiek.

Aurrekontu-egonkortasuneko helburuek ezartzen dutenez, 2022. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko defizita % 0,9koa izango da, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak 2021eko uztailean egindako bilkuran akordioa lortu ondoren. 2022ko aurrekontuetan, 683,2 milioi euroko zorpetze garbia aurreikusten da, eta 746,4 milioi euroko amortizazioak; beraz, zorpetze gordina (garbia+amortizazioak) 1.429,6 milioi eurokoa izango da. Zorpetze-aurreikuspena 1.122,8 milioi eurotan murriztuko da, ekarpenak gehitzearen ondorioz eta 200 milioiko diruzaintzako gerakinak erabiltzearen ondorioz. Bestalde, 2022ean zor publikoak ez du Barne Produktu Gordinaren % 15,6 baino handiagoa izan behar.

3. I+Gko inbertsioa

Aurrekontu-proiektuak I+Garen aldeko apustu irmoa eta argia jasotzen du, eta hori zenbait sailetan eragina duen zeharkako gastu-lerroa da:

I+Gko INBERTSIOA 2022an		
SAILAK	M/€	
Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena	304,1	<i>Berrikuntza-funtza, teknologia, nekazaritza eta arrantzako I+Ga, eraldaketa digitala...</i>
Hezkuntza	182,1	<i>Berrikuntza-funtza, ikerketa eta ikertzaileak, unibertsitatea</i>
Osasuna	63,4	<i>Berrikuntza-funtza, osasun-ikerketa eta -ikertzaileak, Osakidetza</i>
Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	22,4	<i>Administrazio elektronikoa, eraldaketa digitala eta ekintzaitza berritzailea</i>

Lehendakaritza	9,9	<i>Berrikuntza-funtsa</i>
Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioa	3,5	<i>Berrikuntza-funtsa</i>
Kultura eta Hizkuntza Politika	2,4	<i>Berrikuntza-funtsa</i>
	587,8	% 9,7ko gehikuntza (+52 milioi euro 2021aren aldean)

4. Sailen arabera banaketa:

Osasuna 4.352 milioi euro (+168 milioi euro): Osakidetzaren aurrekontua 116,6 milioi euro gehitu da —3.333 milioi eurora arte— eta inbertsioen finantzaketak 37 milioi eurotan egin du gora —106,7 milioi eurora arte—. Itunpeko Ekintza Programak, oro har, 3 milioi eurotan egin du gora, aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Arlo sozio-sanitarioa, berriz, 4,2 milioi eurotan gehitu da, eta guztira 7,2 milioi eurora iritsi da. Era berean, txertoetan egindako gastua 19,2 milioi eurora arte hazi da (+5 milioi euro). Farmazia-gastua, berriz, egonkor mantendu da. Osasun publikoko partida berriro ere hazi da (+2,6 milioi euro) eta 29,7 milioi eurotara iritsi da.

Hezkuntza 3.235 milioi euro (+126,9 milioi euro): Sail horrek 41,3 milioi euroko gehikuntza izango du inbertsioetarako. Langileen eta funtzionamenduaren gastuak 1.738 milioi eurokoak dira; 61,5 milioi euroko igoera izan da, pandemiarekin abian jarritako neurriei eutsiko baitzaie. 0 eta 3 urte arteko hezkuntzak eutsi egiten dio 30 milioi euroko aurrekontuari, Haurreskolak partzuergoak 59 milioi euroko aurrekontua du eta Euskal Herriko Unibertsitateak 356 milioi eurokoa.

Lana eta enplegua 936,2 milioi euro (-7,6 milioi euro): Sail honetan, nabarmendu behar da gazteen, emakumeen eta 45 urtetik gorakoen enplegarritasuna bermatzeko zenbait programa barnean hartu izana. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentako zenbatekoak % 3 gehituko dira (aurten % 1,8 gehitu dira). Igoera horrekin ere, enpleguaren hobekuntzak eta Gutxieneko Bizi Sarrera txertatzeak aurrekontuko aurreikuspena doitzen dute (345 milioi euro), eta, beharrezkoa izanez gero, zenbatekoa handitu daiteke. Era berean, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria % 10 gehitu da, 87,4 milioi eurotara iritsi arte, zenbatekoak % 10 gehitu baitira (hileko 250 eurotik 275 eurora).

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena 777,4 milioi euro (+123,3 milioi euro): aurrekontua gehitu da industria-garapenean (+41 milioi euro), teknologian (+19 milioi euro), eraldaketa digitalean (+10 milioi euro), portuetan (+7,6 milioi euro), nekazaritzan (+8,6 milioi euro) eta ingurumenean (+7,7 milioi euro). Era berean, gehitu egin dira SPRI, SPRILUR eta Parke Teknologikoetako inbertsioak, ia 58 milioi eurora arte (+40 milioi euro).

Segurtasuna 725,1 milioi euro (+33,2 milioi euro): inbertsio publikorako 24,8 milioi euro izatetik 42 milioi euro izatera pasa da Saila.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioa 564,4 milioi euro (+57,6 milioi euro): nabarmentzen dira azpiegitura eta garraioaren kudeaketako programa —40,5 milioi eurotan gehitzen da—, etxebizitza-programa —10 milioi euro gehiagorekin— eta lurralde-plangintza —6,9 milioi euro gehiago—. Euskal Y-rako eta Hego Saihesbiderako 56,4 milioi euroko zenbatekoa aurreikusten da.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak 528,6 milioi euro (+67,1 milioi euro): Emakundek 7,4 milioi euroko aurrekontua izango du, eta Garapenerako Lankidetzaren Agentziak 50,2 milioi eurokoa. Gizarte Larrialdietarako Laguntzarako eta pobrezia energetikoa borrokatzeko 42,5 milioi euro izango ditu. Barnean hartzen du Espetxeetako Programa berria, 70 milioi euro izango dituen.

Kultura eta Hizkuntza Politika 322,4 milioi euro (+ 32,6 milioi euro): sail honen 161,5 milioi euro EITBri dagozkie (+12,6 milioi euro); HABEK, berriz, 46 milioi euro inguruko aurrekontua izango du, 3,4 milioi euroko gehikuntzarekin.

Gobernantza Publikoa eta Autogobernua 139,2 milioi euro (+9,8 milioi euro): 2022an Sail honek digitalizazioaren aldeko apustu handia egingo du, eta HAEEK 20,8 milioi euroko aurrekontuari eutsiko dio.

Ekonomia eta Ogasuna 128,6 milioi euro (+41,2 milioi euro): Sail honetan deigarriena da Finkatuz funtsari Finantzen Euskal Institutuaren bidez egiten zaion 50 milioi euroko ekarpena, baita finantza-gastuak ordaintzeko 7 milioi euroko zenbatekoa ere. Gainera, Elkargiren abaletako hornikuntza teknikoen funtsen kostua eta diru-laguntzak 21 milioi eurotan murriztu dira, eta 11 milioi eurotan geratu dira. Eustatek 14,5 milioi euroko aurrekontua izango du.

Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa 52,1 milioi euro (+4,8 milioi euro): 22,4 milioi euro bideratuko dira Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritzara, 19,9 milioi euro Merkataritzara eta ia 6 milioi euro Kontsumobidera.

Lehendakaritza 35,5 milioi euro (+3,1 milioi euro): aurreko ekitaldiekiko berritasuna da Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkari bat irekiko dela Parisen, eta horretarako inbertsioa 1,1 milioi euro ingurukoa izango da. Horrez gain, kontuan hartu behar da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Planaren 9,9 milioi euroko aurrekontua.

5. Inbertsio publikoa Sailen arabera

2022ko INBERTSIO PUBLIKOA		
SAILAK	M/€	Gehikuntza, 2021aren aldean (M/€)
Ekon. Garapena, Jasangarrit. eta Ingurumena	512,4	100,0
Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioa	373,8	53,7
Hezkuntza	166,4	41,3
Osasuna	110,2	36,7
Ekonomia eta Ogasuna	64,3	29,7
Segurtasuna	46,1	17,3
Kultura eta Hizkuntza Politika	37,5	20,4
Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak	28,7	15,4
Lana eta Enplegua	21,6	15,0
Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa	9,9	7,1
Gobernantza Publikoa eta Autogobernua	5,9	0,7
Lehendakaritza	2,5	0,3

* Inbertsioaren gainerakoa erakunde autonomoetan dago: Lan Harremanen Kontseilua, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa...

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

PANDEMARIAREN ONDORIOZ UTZARAZPENAK ETETEAREN ERAGINPEAN DAUDEN ERRENTATZAILEEI EDO JABEEI KONPENTSATZEKO AGINDUA ONARTU DU EUSKO JAURLARITZAK

Iñaki Arriola Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak onartu du pandemiaren ondorioz bizileku-alternatibarik ez duten familia zaurgarrientzako utzarazpen- eta kaleratze-prozedurak etetearen eraginpean dauden errentatzaileei eta jabeei konpentsatzeko agindua.

Laguntza horiek zuzentzen zaizkie beren etxebizitza berreskuratzeko tramiteak hasi zituzten baina, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren neurrien ondorioz, prozedura eten zitzaien pertsoneri. Izan ere, 11/2020 Errege Lege Dekretuak babestu egiten ditu, besteak beste, pandemian utzarazpen baten ondorioz zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonak. 2021eko ekainean autonomia-erkidegoen esku geratu zen laguntza horiek kudeatzeko prozedura.

Eusko Jaurlaritzaren aginduak 120.000 euroko hasierako aurrekontua ezartzen du, eta aurrekontu hori handitu ahal izango da, aldeko ebazpena lortzen duten eskaera guztiak ordaintzeko. Laguntzaren zenbatekoa higiezina dagoen inguruneko hileko batez besteko errentarena izango da, Alokairuaren Merkatuko Estatistikaren azken datuen arabera; edonola ere, zenbateko hori errenta finkatua baino handiagoa bada, jabeak jaso ez zuen errentamendu hori ordainduko da. Laguntza horiei esker konpentsatuko dira, batetik, jaso ez den alokairuaren kostua eta, bestetik, bere gain hartu direla frogatutako etxebizitzaren gastu arruntak, betiere 2020ko Errege Lege Dekretuan oinarrituta kaleratzea eteteko autoaren datatik urriaren 31ra arte edo, bestela, aurreko data batera arte, baldin eta auzitegiak etete hori lehenago kentzen badu.

Kompentsazioak bateraezinak dira beste laguntza batzuekin, baita alokairua ez ordaintzeko aseguruaren ondoriozko kalte-ordainekin ere. 2021eko azaroaren 30era arte eskatu ahal izango dira laguntzak, eta aurkeztu beharreko dokumentazioaren artean honako hauek daude: alokairu-kontratua, utzarazpena etetearen oinarri den zaurgarritasun-txostena edo etete-autoa bera.

Eskaerak: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1202701/web01-tramite/eu/>

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

GARRAIOETAKO SAILBURUAK JAKINARAZI DU ABIADURA HANDIAK VITORIA-GASTEIZEN IZANGO DUEN INTEGRAZIOA ARINTZEKO PROTOKOLOA SINATU DELA

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak Gobernu Kontseiluari jakinarazi dio gaur protokolo bat sinatuko duela Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioarekin, Arabako Foru Aldundiarekin, Vitoria-Gasteizko Udalarekin, ADIFekin eta Abiadura Handiko Vitoria-Gasteizko Sozietatearekin, abiadura handiko trena hirira irits dadin eta trenbidea hirian integra dadin bultzatzeko.

Protokoloak aldatu egiten du administrazio horiek berek 2010ean sinatutakoa, denbora-tarte beraren barruan sartzen baitu abian den informazio-azterketaren tramitazioa eta onarpena eta abiadura handia hirira iristea ahalbidetuko duten oinarrizko proiektuen eta eraikuntza-proiektuen tramitazioa eta onarpena. Horretarako, ADIF gaitzen da Arkautiko gurutzagunearen eta Vitoria-Gasteizen trenbidea integratzearen oinarrizko proiektua idaztearen kontratua lizitzatzeko, betiere informazio-azterketaren tramitazioak jarraitzen duen bitartean.

Akordioan, halaber, erakundeen arteko lankidetzak hartzen da aintzat, urrats hori egin ahal izateko ingurumen-arloko kontsultak arin ebatz daitezela. Horrez gain, Abiadura Handiko Vitoria-Gasteizko Sozietatearen barruan jarraipen-batzorde bat eratzea ezartzen da, adostutako akordioak bultzatuz.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK 'ERRONKA GLOBALEN AURREAN, GAZTERIA MARTXAN' SARIEN LEHEN EDIZIOA DEITU DU

- **18 eta 30 urte bitartekoek aurkeztutako proiektu irabazleek 3.000 euroko hiru sari, 1.000 euroko 10 sari eta 500 euroko 20 sari irabazi ahalko dituzte**
- **Aurkezteko epea azaroaren 10etik abenduaren 9ra bitartekoa izango da eta helburua da Euskadiko gazteen artean elkartasuna eta garapenerako lankidetzaren sustatzea**

Gobernu Kontseiluak, gaur, *Erronka globalen aurrean, gazteria martxan* sarien lehen edizioaren deialdirako 29.000 euroko kopurua onartu du.

Deialdiak sarituko ditu 18 eta 30 urte bitarteko Euskadiko gazteek aurkeztutako proiektuak, Euskadiko eta beste lurralde batzuetako gazteen arteko elkartasuna, garapenerako lankidetzaren eta trukea sustatzea helburu dutenak. Deialdiak ez ditu ekintza eta jardura motak mugatuko; izan ere, beste gauza askoren artean, bilatzen du sustatzea sormena, beste errealitate batzuen ezagutza eta GGKEen eta lankidetzarekin erlazionatutako beste elkarten lanaz ohartzea. Halaber, beste gazte batzuk sentibilizatzeko asmoz, lehiaketak hainbat motatako ideiak aurkezteko aukera emango du: musika, dantza, hitzaldiak, bideoak edo bestelako edozein ekimen.

Hautagaitzak banaka edo taldean egin ahalko dira eta aurkezteko epea azaroaren 10etik abenduaren 9ra izango da.

Proiektuak gazteekin eta garapenerako lankidetzarekin zerikusia duten pertsona batzuek eratuko duten epaimahaiak balioetsiko ditu, eta hiru sari irabazi ahalko dituzte: 3.000 euroko hiru sari, 1.000 euroko 10 sari eta 500 euroko 20 sari.

Ekimen hau Gazteria Zuzendaritzaren eta eLankidetzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren artean sinatutako hitzarmenean sartzen da. Hitzarmen horri esker, Euskadiko Gazteak Lankidetzaren programa ere garatzen da.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 2,4 MILIOI EUROKO ZUZENEKO DIRU-LAGUNTZA EMANGO DIO SESTAOKO UDALARI, LABE GARAIA BALIOAN JARTZEKO

Sestaoko Labe Garaia monumentu-kategoriako kultura-ondasun izendatu zuten 2005ean. Gainera, egoera ahulean dauden eskualdeak bultzatzeko Lehentasunezko Jarduteko Guneetako batean (ZAP) kokatzen da. ZAP plana Berpiztu programaren barruan dago. Sestaoko Labe Garaia ZAP planean sartutako proiektuetako bat da.

Horrela, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 2,4 milioi euro inbertituko ditu industria-ondasun horri balioa emateko lanetan. Horretarako, urte anitzeko zuzeneko diru-laguntza emango zaio Sestaoko Udalari, eta honako lan hauek aurrera eramateaz arduratuko da:

- Hondeaketa-plana eta ingurumen-baimena
- Txabarri-La Benedictina bidearen eta Labe Garaiko Parke Publikoaren arteko irisgarritasuna
- Bisita-zentroaren-Musealizazio espazioen eta BIC-Bizkaia Ezkerralderako sarbideak
- Labe Garaia lehengoratzeta (proiektua idaztea)
- Proiektu osagarriak
- Labe Garaiko Jardueren Kudeaketa

Jarduera horien guztien helburua da euskal kultura-ondare izendatutako monumentuaren babesa, kontserbazioa eta balioa bermatzea.

Lan horietarako, Sestaoko Udalak 400.000 euroko diru-laguntza jasoko du aurten, eta 2 milioi eurokoa datorren urtean.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK EUSKAL KULTURA ONDAREAREN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KONTSEILUA ARAUTZEN DUEN DEKRETUA ONARTU DU

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Euskal Kultura Ondarearen Euskal Autonomia Erkidegoko Kontseiluaren osaera, antolaketa, funtzionamendua eta eginkizunak arautzen dituen dekretua.

Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak zehazten du Kontseilu hau sortzearen beharra euskal administrazio publikoen diziplina anitzeko partaidetza-organo nagusi bezala. Legeak Euskal Kultura Ondarearen Erakunde arteko Organoa sortzea ere aurreikusten du eta joan den urriaren 5ean onartu zen organo hori arautzen duen dekretua ere.

Eusko Jaurlaritzako kultura ondarean eskumena duen sailari atxikitako Kontseilua izango da eta barruan EAEko erakundeetako langile kualifikatuak eta kultura-ondarearen arloan diharduten sektore profesionaleko teknikariak, espezialistak edo ordezkariak bilduko ditu.

Honako hauek izango dira Euskal Kultura Ondarearen EAEko Kontseiluaren zereginak:

- Euskal administrazio publikoei kultura-ondarearen alorrean aholku ematea.
- Babes berezia eta ertaina duten kultura-ondasunen deklarazio-proposamenen gaineko txostenak ematea Eusko Jaurlaritzari.
- Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean aurreikusitako txostenak egitea.
-

Euskal Kultura Ondarearen EAEko Kontseiluko burua Eusko Jaurlaritzan kultura-ondarearen arloko eskumena duen sailburuordea izango da eta gainontzeko beste kideak Eusko Jaurlaritzako, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundietako ordezkariak, hirigintza arloko adituak, EHUko kultura ondarean aditua den pertsona bat, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoko beste kide bat, arkeologian aditu bat eta kultura ondarearen arloan lan egiten duten teknikari, espezialista eta elkartetako ordezkariak izango dira.

Euskal Kultura Ondarearen EAEko kontseilua gutxienez urtean behin bilduko da.

Seguridad

EL GOBIERNO VASCO Y LA ASOCIACIÓN VASCA DE EMPRESAS QUÍMICAS SUSCRIBIRÁN UN CONVENIO RELACIONADO CON LAS CAMPAÑAS INFORMATIVAS VECINALES Y LA RED DE AVISOS

- **En el convenio participarán también los responsables de las empresas químicas implicadas en la directiva de accidentes graves SEVESO**
- **La red de avisos a la población se basa en la instalación de sirenas y megafonía fija ante el riesgo de accidentes graves en los que intervengan sustancias peligrosas a fin de alertar a la población**

El Consejo de Gobierno ha dado el visto bueno a la firma del convenio de colaboración que suscribirán el Departamento de Seguridad, la Asociación Vasca de Empresas Químicas (AVEQ-KIMIKA) y las empresas Dekitra S.A., Electroquímica de Hernani S.A., Hexion Specialty Chemicals Ibérica S.A., General Química S.A.U. y Petróleos del Norte S.A. (Petronor), en relación a la organización de campañas informativas dirigidas a la población relacionadas con el riesgo químico y al mantenimiento de la red de avisos acústicos en caso de emergencia. Dicha red se basa en la instalación de sirenas y megafonía fija con vistas al control del riesgo de accidentes graves en los que intervengan sustancias peligrosas.

Si bien la administración vasca adquirió e instaló en su día una red de equipos de alerta y de control a fin de atender los planes de emergencia exterior, deben ser ahora los titulares de aquellas actividades que puedan originar una emergencia de protección civil los que efectúen, a su cargo, la instalación y el mantenimiento de los sistemas de generación de señales de alarma a la población en las áreas que puedan verse afectadas por las emergencias que puedan producirse, tal y como consta en la Ley 17/2015, de 9 de julio, del Sistema Nacional de Protección Civil.

